

## ***Herrietako eskola ttikien besta: Ziga***

***2024ko irailaren 28a***

Abuztu akabaila. Pena dut, berriz Zigako bestak ailegatzeko aunitz esperatu beharko dut. Etxean behin baino gehiagotan, kasik abuztu hasmentatik, “urtea badoa” aitua dut. Urtea badoa, uda badoa. Irudi du, dena badoala. Denbora badoa. “Eguberriak gainean ditugu” da ondoko esaldia. Heldu gehien gaixotasuna “denbora falta” dela uste dut. Beti falta zaie denbora.

Eta niri, berriz, ondoko Zigako bestetako denbora aunitz falta dela iruditzen zait. Hala ere kontent nago. Abudo hasiko naiz estutxea prestatzen, aurten ze lapitz, zein goma, ze kolore, ze motxila... gehiena joan den urtekoa izanen da, baina zerbait erosiko dut urte berrirako. Ez dakit noiz den urte berriagoa, irailean edo urtarrilean. Helduei ere maiz entzun diet gauzak aprobetxatu behar direla, gauza batek bi gauzetako balio badu, hobe. Akaso hobe litzake urte berri bakarria ospatzea ere, ez? Honi buruz ez dut uste gehiegi pentsatu dutenik.

Hau dena, ni, eskolara kontent hasten naizela errateko. Eta eskolako hilabeteek aunitz irauten dutela. Aspalditik omen dago eskola Zigan. Ez oraingoa, baino aunitzetan aditu ditut etxeokak eta herrikoak eskolari buruz solasean. Nola bi eskola zeuden, mutikoena eta neskena, zenbat haur egoten ziren gelan, nolako irakasleak zituzten, nola ezin ziren euskaraz solastu,... baina zailtasun guzien aitzinean, beti irriz kontatzen dituzte haien historiak. Gustatzen zait kontu kontari dabiltzanean belarriak erne edukitzea eta nire herria nolako izan zen ikustea. Aditu izan diet ere nola herrian Apaizak, medikuak eta maistrak zuten boterea. Eskolak nolakoak izan behar ziren erakusten zien, zer pentsatu behar zuten, zer ez, elizak ere, medikuak ere... eta hiruen artean bijilatzen zituzten herritarrak. Kastigatu behar zena, denek kastigatzen zuten. Dena errepikatzen zen, deus ere ez atzentzeko.

Bertze istorio andana bat ere entzun ditut geroxeagokoak. Eskolan nola egiten zuten hau eta hura, harekin eta honekin, ... denak elkartzen dira toki baten memorian: oroitzapen onak eta ez hain onak. Eskolan, arras ongi pasatu dutenak eta arras gaizki pasatu dutenak, eta bi muturren artean dauden bertze denak baitaude. Nik beti gustura aditzen ditut eskolatik pasatu diren denen kontuak, iruditzen baitzait, eskolatik pasatu den pertsona bakoitzaren historiak egiten duela eskolaren historia.

Ez dakit zuei, baina niri, protagonista aunitz dituzten istorioak gustatzen zaizkit. Eta hemen ere badira batzuk. Nire Zigako eta Anizko lagunak eta ni, ni baino zaharragokoak, nire gurasoen adinekoak, aitatxi eta amatxiren denboretakoak, denak izan gara protagonistak eskolan...eta baita bertan egon diren irakasle guziak ere. Irakasleek ere eraiki dute hemengo historia. Nik denetatik ezagutu dut, nire garaian, urtero edo bi urtean behin aldatu dira irakasleak (ez horrengatik arrasto gutiago utziz), baina bertze batzuk, urte dezente pasatu omen dituzte herrian. Ongi entzun duzue, herrian. Holako herri *ttikietako* eskoletan egotea, herrian egotea baita. Eta herrian parte hartzea. Maria Eugenia, Mari Joxe, Piru, Maite,... behin baino gehiagotan aditu ditudan izenak dira, hemen egon diren denboragatik eta haien eskuek hemen utzi duten eraginagatik.

Ohartu izan naiz eskolara bidean, badirela haurrak eskolara nola joaten diren ikusteko iratzartzen diren herritarrak ere. Adinekoak eta ez hain adinekoak. “*Panaderoren*” esperoan daudela erraten dute, baina begietan nabari zaie gure bizitzeko, ikasteko dugun gogoa ikusi nahi dutela. Nik uste dut, jatordu batek baino pixka bat gehiago betetzen duela horrek. Barrideak amatxiren eskutik

goititzen dute malda eta goizak, usain fresko-freskoa hartzen du eskolako atera ailegatzean. Gustatzen zait etxe tarteko karrika hauetan, pertsona bakoitzen arropa kolore diferentek egotea, eta jendea bizitzeko sortu zen herri honetan, jendea ikustea.

Gauzak aldatzen ari omen dira, edo hori da erran didatena. Pentsatzen dut ez dutela inoiz aldatzetik utzi, baina orain, forma makurrago batera doala irudi du. Herrian gero eta jende gutiago bizi gara, haur gutiago eta eskola, gero eta hutsago. Bi eskoletan kabitzen ez ziren urteetatik, eskola betetzen ez dugun garaira pasatu omen gara. Gurasoak eta herritarrak haserre, triste eta arduratuak ere sumatu ditut azken aldian.

“Tontorrera ailegatzeko malda franko”. Eta malda honek ere egiten du gure historia. Eskolatik etxera bueltan, Abartan niri begira ikusten dut. Beti toki berean, joan den nik zer dakit zenbat urtetan. Berari ere galdegin nahi nioke berak zer ikusi duen, zer sumatu eta zer sentitu. Zertan zaindu gaituen eta zertan gidatu. Zertarako egin zituen bere alde batean harri batzuk, eta ze zailtasun erakutsi nahi zizkigun guri horrekin.

Gaurko eguna ere eskolako historiaren lerroan sartu nahi dut. Azken urtean egindako lana, atzo elkartutako Aniz eta Zigako herritarrak, gaur herri honi bere tokia egitera etorri zareten bertze herrietako herritarrak, bihar elkartuko garenak... gure bizipenak ere bildu behar nituzke nolabait. Usain baten bueltan, kantu batean, edo memorian gelditzen diren argazki horietako batean.

Eskolako pareta bakoitza dago memoriaz eta biziz beteta. Eta paretek egiten duten oihartzuna entzuten asmatu behar dugu, norantz segi jakiteko. Hortaz, gaur, gugana hurbildu zareten denei, eskerrak emateaz aparte, herriko xoko bakoitza zerez bete nahi duzuen pentsatzea eskatzen dizuegu. Eta moduren batean, espero dugu, guk jada bete ditugunak gozatzen ahalko dituzuela.

Herri *ttikietako* eskola handiak elkartu gara gaur hemen.

*“Urtea badoa, denbora badoa”*, eta gu, hemen gelditu gara.